Gure mundutxoa



Alemaniako Hizkuntz Irakasleen Elkarteen biurteroko bilera

Alemaniako Hizkuntza Irakasle Elkarteak Münster-en Martxoaren 24etik 26ra burutu duen bere biurteroko Bilerako bi ekintzaren berri emango dugu, gure irakurleentzat jakingarri direlakoan.

«Ikusentzunezko tresnez hornitutako ikasgela funtzio anizduna» ponentzian Otfried Börner de Hamburg-ek azaldu zuen nola balia daitekeen hizkuntz laborategi zaharra, partaideak elkarrengandik banatzen dituzten hormak kenduta. Taldekako lana errazten du, aldi berean programa bakoiztuei leku emanez eta klasea irakasleak gidatzeko parada. Eskaintzen diren baliabideak ugaritu behar dira: egunkariak, aldizkariak, atzerriko produktu jatorrak, diskoak, jokoak, postazko salmenta-etxeen katalogoak, asmakizunak, kontsulta-liburuak, liburu teknikoak, antologiak, komikiak, literatura, diapositiba eta gardenkien proiektorea, bideoa...

Matthias Walter de Marl beste hitzaldi batean konputagailuaren baliagarritasunaz aritu zen. Hona zertarako:

1. Klaseak prestatzerakoan testuak prozesatzeko.
2. Datuak eta landutako materialak jasotzeko.
3. «Ikaskuntz tailerretarako» ikasleei terminal eta programetako bidea zabalduz. Aski eztabaida sortu zuen honek lekartzakeen ondorio pedagogikoak direla eta.
4. Zenbait programa bereziren ikaskuntza bakoizturako.

Jürgen Wolff
Itzultzailea: Boni Urkizu

Euskal Ebakeraz II Jardunaldiak Durangon

Jakina denez, joan den maiatzaren 30 eta 31ean burutu ziren Durangon euskal ebakerari buruzko II Jardunaldiak.

Euskara batuaren prozesuan idatziari eman zitzaion lehentasuna, gisa denez. Horregatik, azken urteetan Euskaltzaindia euskara idatzia bideratu nahian ibili da.

Alabaina, mintzatuak pisu berezia du hizkuntza bizietan eta problema bereziak sortzen dira hiztunen artean. Hortaz, euskara jagon nahi duenak ezin ditzake ahantz edo gutxietsi alor horretako arazoak. Horregatik antolatu zituen Euskaltzaindiak jardunaldiok, lau urte lehenago 1982.eko ekainaren 11 eta 12an Azkoitian egin zirenen jarraipen gisa.

Eta euskara mintzatuaren alorrean sartuz gero, hor nabarmentzen diren auziak ebakera, azentua, doinua eta entonazioarenak dira, bata bestearekin hertsiki lotuak daudelarik. Durangoko jardunaldietan euskararen azentua izan zen aztergai nagusia.

Villasanteren aurkezpena

Euskaltzainburuak, Durangoko jardunaldien hasieran, oso ongi azaldu zuen panorama, arlo honi dagokionez.

Behin Suzuko Tamura japoniar euskalariak ohartu omen zuen euskaldunak erdal azentuz mintzo zirela euskaraz. Horra arazoa gordinki adierazia, azken urteotan gertakari hori areagotzen ari delarik.

Baina ez pentsa arazo hau bideratzea batere erraza denik. Alde batetik, erdal giroan bizi gara, inguruko erdarek ustekabean kutsatzen gaituztelarik. Bestetik, berriz, euskararen barruan ere azentu desberdinak daude, euskalki eta eskualdeen arabera.

Argi eta garbi adierazi zuen Villasante jaunak azentuaren auzia nahiko berde dagoela oraino ikerketa mailan, eta halaxe frogatu zen bi egun horietako jardunetan.

Hitzaldien aipamen laburra

Txillardegik izan zuen lehen txostena, azentu batuari buruz proposamen batzu eginez. Nahiz eta oso lan zehatza izan, nahiko iritzi kontrastak eta desberdinak azaldu ziren ondoko elkarrizketan.

Hurrena, Karmele Rotaetxe andereak, bere txostenean, azentuaren eta entonazioaren arteko harremanak aztertu zituen. Bada hor gehiago sakontzea merezi duen arlo bat, orain arte gutxi aipatu bada ere.

Patxi Altunaren komunikazioa ere jakingarria izan zen. Azpeitiko azentuaz jardun zuen, hain zuzen, herri hartako azentua aski berezia dela frogatuz.

Alfontso Irigoyenek ere gogoeta praktikoak eta zentzuzkoak eskaini zituen bere komunikazioan. Kriterio orokor bezala, azentuaren alorrean joera desberdinak onartzearen alde hitzegin zuen, euskararenak diren bitartean. Besterik da, noski, erdaratik edo erdaretatik datozen kasuetan.

Beti bezala, interes bizia zegoen Koldo Mitxelenaren txostena entzuteko: *«Uste eta iritzi euskal azentu mota batez»*. Ene ustez, ez zuen gehiegi argitu auzia, gogoetagai interesgarriak eta zenbait kritika zorrotz eskaini bazituen ere.

Jose Basterretxea «Oskillaso» jaunak lau urte lehenago Azkoitian aurkeztu zuen komunikazio bera irakurri zuen, Gernikaldeko azentuari buruz.

Juan Manuel Etxebarriak Bizkaiko Zeberion egin zuen azterketa batean oinarritu zuen bere komunikazioa, kontsonante multzoen ahoskera dela-ta, idazkeraren eta ebakeraren arteko ezberdintasunak argituz.

Lourdes Oñederra anderearen komunikazioa ere jakingarria izan zen. Azentuaren gorabeherak hizkuntzaren errejistro desberdinen arabera planteatu zituen.

Interes handia biztu zuen beste txosten bat Francesc Vallverdú kataluniarrarena izan zen: *«Problemas del standard oral en la radio y televisión catalanas»*. Kataluniako telebistan dituzten arazoak eta bertan segitzen duten hizkuntz politika argi eta garbi azaldu zituen. Aintzakotzat hartzekoa izan zen hizkuntza idatziaren eta mintzatuaren artean egin zuen bereizketa, telebistan batez ere ahozko hizkuntza standarda bilatzen dutelarik, beti ere programak eta egoerak gogoan hartuz. Datu bitxi bezala, TB-3 katean (Kataluniako telebista) hamazazpi hizkuntz arduradun omen daude, katalunieraren kalitatea zaindu eta kontrolatzeko. Hain zuzen, Francesc Vallverdú bera da guzti horien buru.

Grabaketen entzutea

Hemen aipaturiko txosten eta komunikazioez aparte, gainerako guztia euskalki desberdinetako grabaketen entzutea izan zen, ondoren elkarrizketa egiten zelarik. Era askotako hitzaldi eta jardunak entzun ziren: elizako sermoiak, Euskal Parlamentuko hitzaldiak, irrati-telebistako albiste emankizunak, ipuin-kontaketak, elkarrizketak eta abar. Denak azentua erreparatzeko jasoak izan ziren. Behin eta berriro seinalatu zen bezala, euskalkiak euskalki, bada hor oinarrizko batasun bat azentuaren aldetik. Agian, zuberera eta erronkariera (gaur hila) izango lirateke kasu aparta.

Euskaltzaindiaren adierazpena

Jardunaldien amaieran, Euskaltzaindiak adierazpen bat eskaini zuen. Gehienek espero bezala, ez zuen inolako arau zehatzik eman oraino ondo aztertu gabea dagoen arlo honetan. Gomendio eta orientabide zabal batzu emateaz konformatu zen. Hona hemen testua bera.

Egunotako Jardunaldien ondoren bildurik Euskaltzaindiak honako adierazpen hau egiten du:

a) Nabari da, euskalkien arteko bereizkuntzak hain gogorrak izanik, euskal azentua, axaleko ezberdintasunak gora behera, funtsean batera dabilela eskualderik gehienetan. Badu, beraz, oinarrizko batasuna ahozko mintzabiderako aski dena. Aski dena oraingoz

eta osoago alde eta bereizkuntzak izan arren —*zúená* «(hark) zuen(a)» eta *zúenà* «zuek duzuena» esateko—, ez dutela ia sekula gaztelaniaz *méndigo* edo ingelesez *cómponent* ebakitzean sortzen diren antzeko nahasteak sortzen.

b) Entzun diren mintzaldien artean baziren era eta maila askotakoak, lagunarteko hizketatik hasi eta hitzaldi landuetaraino. Komeni litzatekeela dirudi, halaz guztiz, euskalki eta eskualde bakoitzeko ebakera ohiturei amore emanaz guztionganako behar den batasuna gordetzea. Ez da hori hiruzpalau egunetan erdiets daitekeen eginbidea: bai, ordea, gerora gabe poliki-poliki egin behar genukeen lana.

c) Hizkuntzaren erabilera okerraren kontrako guzion gatazka sendotu behar da, eskoletan eta komunikabideetan batez ere. Aldi berean hizkuntza biziaren erabilera artatu eta bultzatu behar da, belaunaldiz belaunaldi kalterik gabe iragan dadin. Hizkuntza, zein ere den euskalkia, ongi darabiltenen arteko arrazoi gabeko lotsa nahiz beldurra uxatu behar da ezinbestean.

d) Noraezeko da horretarako gure irakaskuntzan ahalegin bereziak egitea, haurtzandegietarik abiatuz, haurrei irakurtzen behar den bezala irakasteko. Beharrezko baita zuzenbidez jokatzeko bi alde erakustea: badirela, alegia, ikus daitezkeen letrak eta ikurrak edo seinaleak; baita ere, ordea, horiek bezain premiazko dena, gogoan eduki behar diren erregela ezinikusiak. *Ez* eta *dakit* berez bata bestearen aldamenean irakurri arren, *eztakit* dela, euskal legeen arabera, irakurri behar dena.

e) Ahozko euskal hizketan eta agiriko komunikabideetan gehienik nabarmentzen den hutsa da, agian, *ere* bezalako hitz azentugabeei, beste hitzen laguntzarik gabe ezin ager daitezkeenei, aitortzen zaien burujabetasuna, euskal ebakeraren kalte gorritan.

f) Ikerlanak ez baztertzeko asmoz, komeni dela iruditzen zaio Euskaltzaindiari azentuaren lekualdatzeaz soilik bereizten diren hitz pareen zenbait zerrenda prestatzea. Nork bere ingurukoak jasotzeaz kanpora, premiazko genuke euskalariek han eta hemen bildurik argitara dituztenak biltzea.

Kritika edo ebaluazio gisa

Kritika gisa ezer aipatzekotan, Jardunaldien apaltasuna seinalatuko nuke. Agian, zenbaitek arauak eta orientabide zehatzak espero zituen, baina ez zen horrelakorik eman. Ez zen ikusi horretarako inolako modurik ere.

Argi eta garbi geratu zen euskal azentua oso gai konplexua dela eta oraindik oso gutxi aztertua. Esan liteke hastapenetan gaudela oraino. Monografiak, tesiak eta azterketa zehatzak behar dira noizbait argitasunik egingo bada.

Gaia bera ondo eta zehazki planteatzea ere ez litzateke abiapuntu txarra. Ene ustez, euskal azentua beste zenbait fenomenorekin lotua dago, hala nola doinua, entonazioa, erritmoa, pausaldiak... Oso gutxi aipatu ziren harreman horiek. Bada hor zer argiturik denon mesederako.

Zenbait gogoeta

Euskaltzaindiak Durangon antolaturiko jardunaldi hauetan parte hartzeko zoria izan nuen. Esan behar dut lehendik ere nolabait sumatua nuen inpresio batekin atera nintzela handik: gure hizkuntzalari-euskalari haundien eta, nolabait esateko, oinezko euskaltzaleen artean zubiak falta direla, alegia. Bi mundu arras bereziak dira.

Gure jakintsuak (unibertsitateko irakasle, euskaltzain eta abar) ur haundietan sartuta dabiltza —batez ere ikerketa mailan esango nuke nik— eta ez dut uste batzutan oso hurbiletik jarraitzen diotenik eguneroko errealitate mugikorrari (euskararen errealitateaz ari naiz, noski). Esan nahi da paraleloan bezala gabiltzala askotan batzuek eta besteak.

Hemen diodana ez dago inoren kontrako azpijoko bezala hartu beharrik, eta are gutxiago inorentzat iraingarri bailitzan. Guztiz normala ere bada gauzak horrela gertatzea, ez bait dago denetarako astirik eta zernahitarako balio duenik ere gutxitan izaten da mundu honetan, nahiz eta hizkuntzaren mundura mugatu. Zerbaitegatik sortu zen espezializazioa.

Eguneroko errealitate aldakorrean dabilenak mila oztopo eta korapilo aurkitzen ditu euskararen inguruan. Irakasleak, kazetariak, itzultzaileak eta idazleak dira batipat horrelako problemak dituztenak. Halaz ere, lehen aipaturiko hizkuntzalari horietan ez dute argitasunik aski topatzen eguneroko galdera horiei erantzuteko.

Garbi dago, ene ustez, hor tartean zerbait falta dela euskararen gurdiak behar bezala funtzionatuko badu. Nik esango nuke euskararen pedagogoak edo katekista kualifikatuak falta direla, hots, euskara ongi jakinik, eguneroko jardunean euskarari planteatzen zaizkion katramilak konpontzeko eta behar denean argitasuna eskaintzeko gai izango direnak.

Hain zuzen ere, horrelako jendea falta delako, zenbaitek arauak eta orientabideak eskatzen dizkio Euskaltzaindiari, baita arauak ematea oso zaila eta labainkorra gertatzen denean ere.

Arauak eta horrelakoak hizkuntzaren axaleko kontuetan ematea ez da hain nekeza (ortografia, morfologia bera...), baina zenbat eta barrenago jo, orduan eta gaitzago bihurtzen da arazoa. Orduan hizkuntza ikastea besterik ez da gelditzen, edozein hizkuntzaren (hizkuntza bizietan bederen) erreferentzi puntu nagusiak gogoan harturik: gure kasuan, euskara mintzatua eta euskara idatzia, hiztun onak eta idazle onak.

Norbaitek esan lezake Peru Kurrilloren egiak errepikatzen ari naizela, baina hizkuntza baten transmisioak normalki funtzionatzen ez duenean —eta hauxe da gure kasua—, dena kolokan gelditzen da eta hizkuntzari buruzko kriteriorik oinarrizkoenak ere lausotu egiten dira jendearen artean. Ez al zaigu horrelako zerbait gertatzen?

Ene iritzirako, euskararen praktikatzaile onak behar ditugu, hau da, euskararen esperientzia luze samarra dutenak, bai idatzian eta bai ahozkoan, eta hori nolarebait besteei ematen dakitenak, nahiz eta linguistikaren azken formulazioak ez ezagutu. Gauza bat da linguistika jakitea eta beste bat euskararen funtzionamendu praktikoa ezagutzea eta hori bideratzeko gauza izatea. Ez dira extrapolatu behar gauzak, sarritan egin ohi denez. Linguistikaren eta gramatikaren boom-ak ez gaitu itsutu behar.

Kontua da euskara azken urteotan alor berrietan sartu dela, hala nola kazetaritzan, administrazioan eta irakaskuntzan, eta horrek dinamika berri bat eta premia berriak sortzen dizkio euskararen funtzionamenduari. Esate baterako, gauza jakina da kazetari batek printzipioz presaka lan egiten duela eta egunero irtenbide konkretuak bilatu behar dituela hainbat atakatan.

Azkenik, Euskaltzaindiaren egoeraz eta funtzionamenduaz ere egin nituen nere gogoetak jardunaldi haien ondoan. Jakina denez, Euskaltzandiak hogeitalau euskaltzain oso ditu, eta norbait hiltzen denean bakarrik izendatzen da berria haren lekua betetzeko, eta bizitza guztirako gainera. Hori dela eta, dexente dira gaur egun ezinduak daduen euskaltzainak eta Euskaltzaindiaren lanetan parte ezin hartu dutenak. Esan nahi da, egoera hori ez dela batere normala horrelako erakunde batentzat, eta are gehiago euskararen gaurko premiak nolakoak diren gogoan harturik. Ene ustez, Euskaltzaindia berregituraketa baten beharrean dago, baldin eta euskararen gaurko dinamikari jarraitu eta erantzun nahi badio. Horixe da nonbait zenbait euskaltzainek ere behin baino gehiagotan proposatu dutena. Euskaltzaindiak gaurko euskararen gidaritza eraman nahi badu, gaur eguneko errealitate horretara gehiago hurbildu beharko luke agian, edota bestela euskarak dituen premiak beste era batera bideratu beharko dira.

Joxe Lizarralde

Hizkuntz plangintzazko III jardunaldiak

Uztailaren 28tik abuztuaren 5era Mari Karmen Garmendia Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako Idazkariaren ardurapean eraturiko Hizkuntz Plangintzazko III jardunaldiak egin ziren Donostiako Usandizaga Institutuan.

Joan den urtarrilean, Idazkaritza horrek babesturik, astebetez I jardunaldiak burutu ziren Argomanizen, Hizkuntz Politikarako Idazkaritzarekin geroz eta harreman estuagoan ari den Juan Covarrubias soziolinguista famatua arduradun delarik. Bere egonaldi horretan aukera zuzena izan zuten bai Eusko Jaurlaritzan baita Foru Aldundietan ere hizkuntz politikarekin zeregina duten Administrazio-gune desberdinetako ordezkariek espezialista horrekin lehen harremanak izateko. Hizkuntzari eta plangintzari buruzko

kontzeptuak argitzen saiatu ziren lehen ekitaldi horretan, euskararen funtzioak gaurko gizartean zein ote litezkeen azterutz.

Bigarren jardunaldiak ekainaren 23tik 27ra bitartean egin ziren Gasteizen, oraingoan aztergaia irakaskuntzako hizkuntz plangintza zelarik. Ekitaldi horretan, helduena ere arakatu zen arren, eskolumeen irakaskuntzari eman zitzaion denbora gehiena, A, B eta D ereduen emaitzak aztertuz, Juan Covarrubias eta James Cummins ardurapean.

III jardunaldiotan, berriz, euskara gizarteko sail guztietan zabaltzeko zer neurri hartu behar diren eta euskara bera nola gaurkotu behar den argitu nahi izan da.

Juan Covarrubias Jaurlaritzarekin aholkulari gisa lanean dabilen irakaslea izan genuen berriro era gure artean. Covarrubias Estatu Batuetan bizi da aspaldiko urteotan, New York-en, eta bertako bi unibertsitatetan irakasle da: Yeshiva eta Setton Hall-en. Mundu mailan soziolinguistika gaietan punta-puntakoak diren espezialistekin elkarlan estuan ari da. Eta Covarrubiasekin batera, New York-eko unibertsitatean luze-zabaleko hizkuntz plangintzan espezialista famatua den Yoshua Fishman etorri zen. Fishman soziolinguistikaren munduan lanik handiena egin duen gizonik jakitun eta ospetsuena dugu, Yeshivan ikerketa soziolinguistikako eskola garrantzitsuaren sortzaile. Bai Covarrubias eta baita Fishman ere arazo linguistikoak dituen hainbat eta hainbat lurraldetan aholkulari gisa ibiliak dira.

Jardunaldiotako beste partaideak hauek izan ziren: Eusko Jaurlaritzako Sailak, hizkuntz arazoekiko ardura zuzena dutenak (Hezkuntza, Kultura, Lehendakaritza...); EITB; HABE, Foru Aldundiak (hizkuntz arazoekiko ardura zuzena duten sailak); Erakunde Autonomoetan euskalgintzan diharduten langileak; berezko partaideez gainera, Hizkuntz Politikarako Idazkaritzak deituriko beste batzu, gaiak hala eskatzen zuenean.

Jardunaldiotan parte hartzeko ezinbestekoa izan zen aldez aurretik txosten bat prestatua izatea. Bertan partaideak bere sailean euskarari dagokionean aurkitzen duen problematika azaldu behar zuen. Parte hartzeko eskabidean txostenak gutxienez bost orrialdekoak izango zirela eta gehienez hogeitabostekoak adierazten zen, Hizkuntz Politikarako Idazkaritzak onartutako txostenen konfirmazioa adierazko zuela gehituz.

- *Jardunaldien aztergaiak*

III jardunaldiok luze-zabaleko status plangintza izan zuten nagusiki aztergai, hau da, euskara gizarteko alor ezberdinetara zabaltzeko zer neurri hartu diren eta hartu beharko liratekeen.

— *Status plangintzarako aztergaiak*

Hizkuntz Politikarako Idazkaritzak eskuartean daraman langintza erarik probetxuzkoenean bideratzeko, hizkuntz funtzio funtziozko azterketa egin nahi izan zuen. Guztira hamar atal hartu ziren kontuan:

Lege-esparrua
Osasun eta medikuntz esparrua
Herri-zaintza
Irakaskuntza
Ingurugiroko erabilera
  — denbora libreko entretenigarriak
  — kirolak
  — errotulazioa eta seinaleztapena
Administrazio Publikoa
Erlijio-esparrua
Komunikabideak eta Publizitatea
  — prentsa idatzia
  — irratiak
  — telebista
  — filmeak
Merkataritza eta industria
Famili barneko eta lagunarteko erabilera

Hamar gai hauetatik aparte badago beste hainbat azterkizun, noski. Hala ere, zabaltasunean irabazteak sakontasunean galtzeko arrisku handiegia ekarriko zuela uste izan zuen Idazkaritzak. Horregatik aipaturiko atal horietara bakarrik mugatu zen ekinaldi honetan status plangintzaren azter-eremua.

Hizkuntzaren «status planning» delako hori aztertzen lehen sei egunak eman ziren.

— *Corpus plangintzarako aztergaiak*

Nola moldatu eta gaurkotu euskara alor horietan erabilia izan dadin?

Hemen ere gaiak hautatu beharra argi ikusi zuen Hizkuntz Politikarako Idazkaritzak azalgaineko jardunean ez amaitzeko. Honako hiru ataletara bildu zen jardunaldi honetako corpus plangintza:

euskararen batasun-bidea
euskararen modernizazioa
euskal itzulpengintza

Jardunaldiotan erabilitako metodologiari dagokionez, horrela eratu zen: txosten bakoitzaren egileak bere lana aurkeztu ondoren, Fishman eta Covarrubiasek, entzundakoaren arabera, beren oharrak eta galderak egiten zituzten eta argibideak eta aholkuak ematen.

Txostenak aurkezteko orduan eta elkarrizketak bideratzeko, ulermen aldetik sor zitezkeen arazo nagusiak onbideratu nahirik, bapateko itzulpen-zerbitzuaz hornituak izan ziren jardunaldiok (ingeles-gaztelania eta alderantzizkoa). Dinamika horri egunero eutsi zitzaion goizeko bederatzietatik eguerdiko ordubi t'erdiak arte, tartean orduerdiko atsedenaldia hartuz.

Jardunaldiotan erabilitako idazki guztiak zabalkunde itxikoak dira oraingoz. Posible da txostenok partez edo osoz aldizkari akademikoetan argitaratzea. Beharrezko pausoak ematen ari da Hizkuntz Politikarako Idazkaritzak helburu hori iristeko.

Bukatzeko, bi hitz jardunaldien helburuei buruz. Jardunaldien xedea ez zen Herri Aginteentzako hizkuntz politikarako erabaki sendoak hartzea, etorkizunean erabakiak hartu ahal izateko bideak argitzen saiatzea baizik, eta goizetik gauerako erabakirik hartuko ez bada ere, eskuartean ditugun bitartekoak etekin hobeaz baliatzeko arras probetxugarriak gerta daitezke, idazkaritzari bereziki. Aukera ezin hobeagoa izan da bidean aurkitzen diren oztopoak elkarri azaldu eta kanpoko esperientziekin kontrastatuz, irtenbiderik egokienak aurkitzen saiatzeko. Sail desberdinetako arduradunak lehen aldiz elkartu dira horrelako azterketa bat egiteko.

Jardunaldiok euskararen normalizazioak suposatzen duen konplexutasunaz konturatu eta lan-erizpideak garbitzeko egokiera izan dira. Hizkuntz Politikarako Idazkaritzak planifikazio soziolinguistikazko mapa aurkeztu behar dio Eusko Parlamentuari datorren urtean. Jardunaldiok oso probetxugarriak gertatuko zaizkio Idazkaritzari betebehar hori bideratzeko orduan. Covarrubias eta Fishman jaunek beren informea eskainiko diote Idazkaritzari, Eusko Jaurlaritzak fruiturik naharoenak emango dituzten neurriak eta erabakiak har ditzan.

Idazkaritzak ekitaldi honetan oinarrizko sakontasun maila lortzea zuen helburu. Egitaraua oso trinkoa, trinkoegia agian, gertatu zen helburu hori lortu ahal izateko. Benetan orain hasten da lana eta ikerketa-bideak eratzeko mementua. Guk lerro hauetatik lan oparoa opa nahi diogu Idazkaritzari.

Nekea zenbait mementutan nabarmena izan arren, neurri handi batean Jardunaldien metodologia zela bide, hauek abegi ona izan zuten. Txostenak asko izateak zenbaitetan taldearen partaidetza murrizten bazuen ere, bestetan oparoa suertatu zen. Eguneko lana ia inoiz ez zen garaiz bukatzen. Hori nahiko adierazgarria da.

Joanba Bergara

VI Jornades de didàctica per a professors de català per a adults

Badu Kataluniako Generalitateak bere Kultura-Sailean Zerbitzu bat, Hizkuntz Politikako Zuzendaritza Orokorraren menpean* helduen katalan-irakaskuntza bultzatzeaz eta koordinatzeaz arduratzen dena: Servei d'Assesorament Lingüistic delakoa.

Servei honetako Talde Didaktikoak eraturik ospatu ziren Bartzelonan Irailaren 1etik 5era bitartean, goiz eta arratsaldeko saioetan, helduen katalan-irakasleentzako VI Didaktika-jardunaldiak. Aurten ere, iaz bezala (ikus 9. ZUTABE 146-147. orrialdeetan), HABEk izan du jardunaldi hauetan parte hartzeko parada. Hona hemen hauen berri.

Hasteko, esan dezagun 400en bat ikaslek parte hartu zutela eta berrogeita bost irakaslek. Esan beharra dago, halaber, iraileko jardunaldiak prestatzeko irakasle hauek lehendik beren jardunaldiak izan zituztela, uztailaren 7tik 11ra, Barx-en (Valencia) (ikus hauen berri ZUTABE honetantxe).

Goizetan bi saio izan ziren, hiru ordukoa lehenengoa eta ordu t'erdikoa bigarrena, «sessions puntuals» izenekoa; arratsaldeetan, berriz, saio bakarra, hau ere hiru ordukoa.

Saio puntualetan, izenak berak dioenez, oso gai puntualak erabili ziren, hala nola, katalan hizkuntzaren alderdiak, diktatuak, aipu bibliografikoak... Mahainguru bat ere izan zen, Kataluniako Generalitatetik kanpo katalana irakasten ari diren erakundeetako ordezkariekin eta HABEkokin egina.

Hiru orduko saioei dagokienez, hona hemen egitaraua.

Goizeko saioak

- Passejant per Barcelona un matí qualsevol. Història de Barcelona i els seus habitants.
- Text gramàtica: integració.
- Teories per a l'aprenentatge de la llengua.
- Inicis metodològics per a un curs de català per a adults.
- Recursos per a l'expressió oral i escrita.
- Sessions pràctiques de correcció de textos orals i escrits.
- Experimentació del programa modular de formació de professors de català per a adults.
- Taller d'activitats sòcio-culturals.
- Expressió escrita per a aprenents no catalanoparlants.
- Activitats per desenvolupar la fluïdesa oral en alumnes no catalanoparlants.
- De Salses a Guardamar i de Maó fins a Fraga (en el bon sentit de la paraula).
- La premsa diària i periòdica. Material de suport de les programacions.
- El conte. Tècniques d'expressió escrita —el «pastiche» i l'escriptura automàtica— i tècniques d'expressió oral per a catalanoparlants.

---

* Kataluniako Generalitateko Administrazio Orokorraren eraketa eta Euskal Herriko Lurralde Autonomoarena bat ez datozenez, argi dezagun hango Hizkuntz Politikako Arduraduna Kultura-Saileko Zuzendari Orokorra dela; kontutan izan behar da Eusko Jaurlaritzakoa Idazkari dela eta ez dagoela inongo Sailaren menpean. Halaber, argi dezagun Katalunian ez dagoela helduen katalan-irakaskuntzarako erakunde berezirik eta horren ardura Hizkuntz Politikako Zerbitzu baten eskuetan dagoela, Servei d'Assessorament Lingüistic delakoaren eskuetan, nahiz honen izenak ez duen irakaskuntzarekin zerikusirik izan behar eman. Azkenik esan behar da helduen katalan-irakasleak lan-orduz kanpo aritzen direla katalana irakasten.

- Què entenem per actituds sociolingüístiques?
- Activitats curtes d'inici de classe.
- Taller de reàlies orals i visuals.
- Anàlisi sintàctica. Idees generals.
- Literatura a la classe de llengua.
- Correcció de textos.

Arratsaldeko saioak

- La cultura a les classes de llengua.
- Com desenvolupar l'autonomia de l'aprenent a les classes. Els centres d'autoaccés.
- Didàctica del llenguatge administratiu I.
- Didàctica del llenguatge administratiu II.
- La llengua catalana al llarg de la història.
- La llengua oral en els diversos registres.
- Les observaions de classe.
- Taller de reàlies escrites i gràfiques. Arxiu.
- Estratègies d'expressió escrita.
- L'expressió oral per a catalonoparlants.
- Comentari de text.
- Els pronoms febles.
- La didàctica de la comprensió i l'expressió a partir d'una tipologia textual.
- Catalanoparlants: gramàtica i/o comunicació.
- La narració oral i escrita.
- La interacció a la classe. La llengua del professor.
- Derivació i composició.
- Models de llengua. Els argots.

HABEkook ez genuen, jakina, saio guztien berri banan-banan jasotzerik izan. Izan genuen, ordea, jardunaldien eraketaz eta dinamikaz jabetzeko aukerarik eta baita, antolatzaileekin batera, barrutik ezagutzeko modurik ere. Oro har, hango egoerarako oso jardunaldi onuragarri eta biziak direlakoan gaude, honako ere, egokitu beharrekoak egokituz, baliagarri gerta daitezkeenak. Eta saio batzutan partaide izan ginenez, lauren berri zabalagoa emango dugu, jardunaldi osoen adierazle.

Cursos específics

Honela deitzen diete katalanek helburu berezietarako ematen diren ikastaroei eta horietaz mintzatu zitzaigun Glòria Sanz «Cursos específics» delakoen koordinatzailea.

Berak zioenez, ikastaro baten berezitasunak maila desberdin ugari eskain badezake ere, funtsean bi sail bereiz daitezke: batak ikasle mota du oinarri, bigarrenak hizkuntz mota.

Lehenengoan hizkuntz eredua eta gaia ikaslegoaren beharrek markatzen dituzte. Ikasle talde hau ia beti enpresaren bateko langileek osatu ohi dute. Ikaslegai horien hizkuntz egoera eta beharrak aztertzen dira lehenik, eta horren arabera egiten da ikastaroaren plangintza. Beren eguneroko zereginetan beharko dituzten ahozko testuak eta idatziak zuzentasunez eta koherentziaz sortzeko gaitasuna lortzea litzateke ikastaro hauen helburua. Ikastaro hauek, beraz, ez daude aurrez programatuta, ikasleen beharrak aztertu ondoren, eta berauei erantzuteko, osatzen bait da programa.

Hona, 1985-1986 ikasturtean emandako ikastaro batzu:

— Generalitateko Justizia Departamentuko langileentzat ikastaroak.
— Bartzelonako Erakusgaien Azokako langileentzat ikastaroak.
— Kataluniako trenetan bozgorailuz mintzatzen direnentzat, ahozko adierazpena zuzentzeko ikastaroa.
— Caprabo supermerkatuko langileentzat ikastaroa.

Bigarren kasuan hizkuntz eredua mugatuago dago, helburua bera ere zehaztuago eta gai jakin batean espezializatuei edo profesionalei zuzenduak dira batipat. Era honetako ikastaroetan lexikoak berebiziko garrantzia badu ere, kontutan hartzen dira beste puntu batzu, esate baterako, sintaxi-egiturak, testuen tipologia, errejistroaren moldaketa ... Ikastaro hauetan parte hartu nahi dutenek katalana ongi ezagutu behar dute, tituludunak dira gehienbat; baina, besterik gabe, ikastaroko gaiaz interesatuak daudenek ere parte har dezakete.

Hauek dira, besteak beste, programaturiko ikastaro bereziak:
— Katalan komertzialerako ikastaroa.
— Komunikabideetako profesionalentzat ahoskatze ikastaroa.
— Zuzenketa ikastaroa.
— Hizkuntza tekniko eta zientifikoa.

Hogei ordutik berrogei ordu bitarteko ikastaroak dira, eta guk hemen ehun batekoa gutxitzat jotzen dugu. Dena den, aitortzen zuten behar baino ordu gutxiago zirela.

Ikastaro hauek Servei d'Assessorament Lingüistic delakoaren ardurapean ematen dira; honek jasotzen ditu eskabideak, ikastaroak antolatzen eta bera arduratzen da irakasleen prestakuntzaz. Irakasle horiek hartu zuten parte hain zuzen gure ihardunaldiotan. Gehienbat informaziozkoak izan ziren eta 1986-1987 ikasturteari begira irakasleen prestakuntzarako ikastaro trinko bat egiteko egunak izendatu ziren.

Klaseen behaketak

Helburua

Ikastaro honek bi helburu zeuzkan: alde batetik, behaketen abantailak ezagutzea eta, bestaldetik, behaketak egiteko erabil daitezkeen teknikez jabetzea.

Egitaraua

Gorago aipaturiko helburu orokorrak lortzeko, ikastaroak lau ataletan banaturik zeukan bere egitaraua:

1. Behaketen helburuak.
2. Egitekoen azterketa: behatu aurretik, bitartean eta ondoren.
3. Behatzea errazten duten baliabideak.
4. Praktika eta ebaluazioa: behaketak egin eta baloratu.

Denbora

Ikastaro honek bederatzi orduko iraupena zeukan.

Azalpenak

Azter ditzagun banan-banan lau atalok.

Lehenengoz, eta hitz lauz esateko edo, behaketen helburua irakaskuntza hobetzean datzala azpimarratuko genuke. Hau da, irakasleek elkarri eginiko behaketen bidez klaseak emateko erak, tentsioa kentzeko baliabideak, ikasleen arreta nola esnatu, klaseen antolaketa desberdinak eta abar eztabaida ditzakete; eta honen ondorioz irakaskuntzaren kalitatea areagotuz lihoake.

Bigarrenez, hona hemen behaketak egin ahal izateko irakasleen egitekoak modu grafiko batez azalduta:



Beraz, izar honen garapenean datza behaketen giltza.

Bestalde, bigarren atal honetan ere irakaslearen rolak aztertu ziren: behariarena zein behatuarena. Eta, azkenez, behatze prozesuaren epeak:

a) behaketa egin baino lehen,
b) behaketa egin bitartean,
c) behaketa egin ondoren.

Hirugarrenez, behatzea errazten duten baliabideak aztertuak izan ziren, behatze fitxa osatzeko irakasleak kontuan hartu behar dituen puntuak, alegia.

Eta, laugarrenez, ikastaro honen azken zatian arlo praktikoari ekin genion: benetako ikaslerik ez geneukanez, bideoz grabaturiko klase batzuren bidez praktikan jarri genuen aldez aurretik ikasitako teoria.

Amaitzeko, metodologiari dagokionean, saioak benetan oso interesgarri eta dinamikoak izan ziren, azpimarratzekoa jendearen eskuhartzea izan zelarik.

Expresió escrita per a aprenents no catalanoparlants

Ikastaro hau Jordi Faulí irakaslearen gidaritzapean eman zen, eta 9 orduko iraupena izan zuen, astelehenetik asteazkenera.

Egitaraua

— *Zertarako idatzizko ariketak.*
— *Idatzizko ariketa motak.*
— *Idatzizko ariketa komunikatiboak.*
— *Ariketa komunikatiboen pausoak:*
  - Hizkuntz helburua.
  - Eredua.
  - Akuilua.
  - Eginkizuna.
  - Helburu gramatikalak.

Balorapena

- Ikastaro guztietan ohitura omen duten bezala, balorazio-itaunketa bete arazi ziguten, arrakasta neurtzeko eta, nola ez, hutsunek betetzen joateako.
- Geure balorapena egiterakoan honako puntu hauek azpimarratu nahi genituzke:
  — *Irakaslea.* Ikasturtean zehar ikastaro hau prestatzen aritu omen da. Ongi mamitua zuen ikastaroaren edukia eta, era berean, baita talde-dinamikaren teknikak ere.
  — *Partaideak.* Ez genuen inoiz aurpegi txarrik ikusi. Partaidetza ona, asistentzia eta puntualtasuna bezalaxe. Beraz, gogoz aritu zen jendea.
  — *Edukia.* Gaia ez zen gehiegi borobildu, baina puntu honi ez zitzaion garrantzi berezirik eman. Teoria gutxi eman zen, baina emandakoa oso argi. Ariketak, bestalde, ugari egin ziren.

  Ariketen helburua teorian ikusirikoa indartzea eta frogatzea izan zen, hots, ariketak teorian emanikoaren argitan aztertzen ziren. Hari honetatik, somatu genuen intentzioa ez zen horrenbeste ariketen tipologia eta ereduak eskaintzea izan, baizik eta irakaslegoa terminologia bakar batera ekartzea.

  Edukia ematerakoan, bitarteko teknikak garrantzia handia du.

Curs de Formació en Avaluació

Programa orokorretik kanpo eskaini zen ikastaroa izan zen. Iraupena aste osokoa zuen, ostegun eguerdirarte ihardun bagenuen ere.

Ikastaroaren prestaketa eta gidaritza irakasle talde baten eskutik etorri zen. Irakasleok Servei d'Assessorament Lingüístc-en barruan diharduen Negociat d'Avaluació taldeko partaideak ziren.

Egitaraua

- Ebaluazioa: Definizioa eta funtzioak ikasprozesuaren barruan.
- Froga motak, ikasprozesuaren barneko funtzioaren arabera.
- Ebaluaketaren oinarrizko kontzeptuak: baliagarritasuna eta fidagarritasuna.
- Hizkuntzaren ebaluaketaren ikuspegi ezberdinak.
- Ebaluaketa-tresnak:
  a) froga objetiboak,
  b) froga integratiboak,
  c) froga komunikatiboak.

Balorapena

Aurreko ikastaroaren balorapenean esandakoak borobilean balio du. Dena den, susmo berri bat erantsiko genioke: eman behar zutena ongi ikasia zuten irakasleek; hortik aurrera planteatu diren itaunei ez diete erantzunik eman.

* * *

Azkenik, eta bukatzeko, esan ditzagun bi hitz antolaketari dagokionez. Bi arlo ezberdinduko genituzke:

— Ihardunaldiei dagokiena.
— Katalanizazioaren antolaketa.

Ihardunaldiak

- Inpresio benetan atsegina 400 irakasle inguru partaide izan eta gutxiago zeudela ematean. Inpresio hori pabelloi ezberdinak erabiltzetik datorke.
- Ihardunaldien banaketak aukera anitz eskaini zituen:
  — goizeko eta arratsaldeko ikastaroak,
  — saio puntualak,
  — liburutegia eta materiale erakusketa,
  — bi, hiru eta bost eguneko ikastaroak.
- Bazkaritarako antolatzaileek ez zuten zerbitzurik antolatu. Dena den, kokalekua aukeratzerakoan, kontutan izan zen inguruak eskaintzen duen infraegitura, eta unibertsitatearen zerbitzuak eskaini zituzten.
- Ikastaroetan partaide izateko irakasleak matrikulatu egin behar zuen eta matrikula ordaindu (1.200 pezeta). Ikastaro konkretuetarako matrikulatu behar zuen irakasleak. Ikastaro bakoitzak partaide kopuru mugatua zuen. Saio puntualak, aldiz, asistentzia librekoak izan ziren.
- Irakaslegoak gogoz hartu zuen parte.
- Asistentzia egunero kontrolatu zen, eta ikastaroaren amaieran asistentzi diploma banatzeko asmoa zegoen.

Katalanizazioaren antolaketa

Hantustea litzateke gure aldetik katalanizazioaren antolaketaz baieztapen borobilak egitea. Hemen bildu nahi genukeena zera da: antolatzaile, irakasle eta partaideekin hitzegin ondoren jasotako eritzia.

- Salbuespenak salbuespen gure duela 6-7 urteko egoeran dihardute. Irakasleek modu autonomoan dihardute, auzo-elkarte eta udalen lokalez baliatzen direlarik. Kontraturik gabe ari dira, inoiz fotokopietarako eta abarretarako dirua poltsikotik jarriz. Materiale aldetik ere urri samar omen dabiltza. Dena den, «Digui-digui» metodoaren laguntza estimagarria omen da.
- Servei d'Assessorament Lingüíst delakoak koordinatzen ditu irakaslean lanak. Zerbitzuan bertan dozena bat irakasle ditu, klase batzu emateaz gain, beraien eta irakaslegoaren prestaketaz eta koordinazioaz arduratzen direnak. Irakasleok larunbatero biltzen omen dira zonaldeko koordinatzaileekin.
- Bada, ostera, Aholkularitza Lingüistikorako Zerbitzua. Nahiz eta katalanaren normalizazio prozesua euskararena baino arretatuxeago ibili (lehen arauak 1913. urtekoak dira), erabilpen zabala omen du zerbitzu honek.
- Ikastaro honetan katalanizazio zentzuan lehen sarrerako urratsak eman asmo dira. Alde honetatik espektatiba handia da irakaslegoaren artean. Agian, hau izan liteke irakaslegoaren parte hartze motibatuaren arrazoietako bat. Edozein eratara ere, militantzia zentzu handiagoa gordetzen dutela dirudi, bai bizi duten egoera profesionalagatik, bai topaketetan «Paisos Catalans» deritzetako irakasleak bildu direlako (Rosellon, Valentzia, Balear Irlak eta Andorra).
- Horren denbora laburrean ikusi ahal izan dugunaren arabera, garrantzi handia damaiote irakaslegoaren artean terminologia bateratua barreiatzeari. Ezinbestekotzat jotzen dute irakaslegoa hizkera berberean trebatzea, ondorengo prestaketa eraginkorragoa izan dadin.

  Horrekin batera garrantzi handia dute aurkezpenerako teknikek. Beraz, terminologia eta teoria zabaltzea garrantzitsua bada, hein berean da garrantzitsua horretarako darabilzkiten teknikak ugariak eta aberatsak izatea. Alde honetatik, badirudi katalanizazioaren «etxea» behetik gora eta poliki-poliki eraiki nahi dutela, nahiz eta beste biderik topatzen ez duten, eginbehar honetan topatzen duten arazorik larriena diru eskasia bait dute.
- Orohar, eta han bertan eman zizkiguten datuen arabera, katalanaren egoera soziologikoa hobea da euskararena baino. Adierazgarri bezala, hona hemen datu

bat: populazioaren %85ak ongi edo oso ongi ulertzen du katalana Kataluniako Komunitate Autonomoan. Beraz, egoera ezberdina da, bai hizkuntzarena, bai aurrekontuena (300 miloi eskas), baita hizkuntzaren berreskurapenaren eraketa bera ere. Dena den, eta ezberdinatasun guztien gainetik, zenbait ideia gogoan jasotzekoak izan daitezke.

Juxto Egaña / Xabier Elortza
Pello Esnal / Iñaki Unibaso

II setmana de formació de professors de català a adults dels països catalans

Uztailaren 7tik 11ra bitartean Barx-en, Valentziako Unibertsitateko Katalanerako Zerbitzuak eta Cataluniako Generalitateko Servei D'Asessorament Lingüistic elkarrekin antolatuta «II setmana de formació de professors de català a adults dels països catalans» ikastaroa burutu zen. Bertan, katalanez hitzegiten den lurraldeetako irakasleen koordinatzaileek (Principat, Pais Valencià, Illes) parte hartu zuten, iaz uztailean Mallorcan hasitako bideari, «I setmana de formació de professors de català a adults dels països catalans» hain zuzen ere, jarraipena emanez. Guztira hogeita hamar bat lagun bildu ziren, ia denak institutuko edo eskoletako irakasleak. Aipatu beharrekoa da koordinatzaile hauei dagokiela koordinatzen dituzten irakasleen prestaketa.

Ikastaro horretan hizkuntz irakaskuntzaren inguruko zenbait gairen sakontzeari eta lantzeari ekin zitzaion. Bestalde, bakoitzak urtean zehar landutako arlo eta izandako esperientzien berri ere eman zen (kulturaren papera hizkuntzen irakaskuntzan, adibidez). Orohar, hau da aste horretan egin zena. Dena den, informazio zehatza onuragarri izango delakoan, hona hemen programa:

Tema/Títol	Organització
• Negociació d'objectius	Targetes i piràmide
• Presentació del programa	Exposició
• Expressió oral: Activitats obertes	Experimentació Treball en grups
• «Microteaching»: Presentació i organització	Demostració
• Observacions de classes	Exposició Debat
• Expressió oral Tipologia de tècniques: – Simulació – Jocs de rols – Activitats dramàtiques – Resolució de problemes	Presentació Experimentació Reflexio
• Llengua: Varietats i registres. – Presentació d'un vídeo – Varietats, registres i habilitats	Presentacions Debats
• Comprensió lectora – Nivell Inicial • Comprensió lectora – Aprofundiment	Sessions paral.leles
• Expressió escrita – Nivell Inicial • Expressió escrita – Aprofundiment	Sessions paral.leles
• Activitats escrites – Disseny de sessions per a professors – Pràctica de programació curta	Taller Presentacions
• Programació llarga 1. Currículum i programació: conceptes i fonaments tècnics.	Exposició
2. Anàlisi i identificació de necessitats.	Exposició Reflexió
3. Anàlisi de diversos models de programació	Treball en grups
4. Equilibri entre gramàtica i comunicació. (ús i forma)	Treball en grups
5. Presentació programacions catalanoparlants Principat	

• Cultura – Activitats sòcio-culturals fora de classe. TASC. – Activitats a classe. El paper de la cultura.	Exposició
• «Microteaching» – Presentació sessions – Realitzacions de cada grup – Comentari i anàlisi: • Management • Interacció	Sessions de cada grup
• Perfil del bon aprenent – Les característiques del bon aprenent	Treball en grup
– Aprendre a aprendre – L'autonomia de l'aprenent – Tècniques	Debat
– Reflexió final	
• Tècniques d'organització i treball – Reflexió sobre les técniques utilitzades – Experimentació: pluja d'idees, estrella preguntes, resoldre problemes	Exposició Treballs en grup
• Sistemes de coordinació pedagògica – Resolució de problema	Treball en grup
– Reflexió sobre diversos sistemes.	Encreuament
• Elaboració d'un pla de formació de professorat	Treball per zones
• Avaluació de la setmana	

HABEk jardunaldiotan parte hartu zuen. Era honetako ikastaroek bertan jarraitzen den dinamika eta metodologiaz jabetzeko aukera ematen dute. Astean zehar biziki hartu genuen esku eta, programak eskatzen zuenean, geure esperientzia ere azaldu genuen.

Ikastaro probetxugarria benetan, beti ere besteren esperientziak eta lan-metodoak ezagutu eta ikustea aberasgarria bait da. Guretzat aipagarriena, goian esan dugunez, lanaren dinamika eta metodologia izan ziren, nahiz eta batzutan zenbait gairen tratamendua azalekoa gertatu.

Itziar Arrieta / Lourdes Elosegi / Joanba Bergara

Irakasleak prestatzeko ikastaroa Zornotzan

1986/87 ikasturterako Bizkaiko Lurraldean sei udal-euskaltegi berri zabaldu eta beste biren plantila bikoiztea aurreikusita dago. Berrogeiren bat irakasle plazadun kontratatzea eskatzen du honek.

Kontutan hartuz iaz udal-euskaltegietan sartu ziren irakasle berrien artean gehienak euskararen irakaskuntzan esperientziarik gabekoak zirela, beharrezko ikusten genuen Bizkaian tankera honetako ikastaro bat antolatzea.

Honetan ari ginela, Zornotzako Udaletik proposamen egokia etorri zitzaigun. Udal horrek INEM erakundearekin egindako hitzarmen baten bidez profesionalen erreziklajerako ikastaro batzu antolatzeko programa egin zuen, eta ikastaro horien artean bat euskaltegietarako irakasleak prestatzekoa izan zitekeen.

Proposamen hau Ikuskatzailetza Sailaren bidez HABEren Zuzendari Orokorrari pasatu zitzaion eta honek bere oneritzia eman zuen.

Beraz, ikastaro hau hiru erakunderen artean antolatu zen: INEM, Zornotzako Udala eta HABE.

Ikastaro osoa INEMek finantziatu du, eta eguneko 500 pzta. ordaindu dizkio ikasle bakoitzari.

Zornotzako Udalak lokala jarri du, eta propagandaz, matrikulazioaz eta honen inguruan behar izan den guztiaz arduratu da. Idazkari berezi bat ere jarri du.

HABEk ikastaroaren programa eta irakasleak jarri ditu.

Ikastaroaren xehetasunak

Ikastaroa Apirilaren 28an hasi zen eta Ekainaren 20an bukatu. Eskolak, goizeko 9etatik 13,30ak arte astelehenetik ostiralera bitartean. Ikastaroa guztira 200 bat ordutakoa izan da.

Programak hiru atal nagusi izan ditu: Euskara, Glotodidaktika eta Mintegiak.

Euskara arloan, sintaxia, hitzak sortzeko bideak, idazketa eta bizkaiera landu dira.

Glotodidaktikan, irakasle eta ikasleen rolak, programazioak egiteko erizpideak, baliabideak eta helbideak, trebetasunen arloa, ebaluazioa.

Mintegietan, programazio eta ebaluazioen prestaketa eta eztabaida.

Azkenean, klase batzu taldeka prestatu eta besteen aurrean aurkeztu eta kritikatu.

Ikastaroaren bukaeran ikasleei pasatu zitzaien inkestatik jaso ditugun eritzien arabera, honelako ikastaroak aberasgarriak bezain beharrezkoak direla esan dezakegu.

Jon Ajuria

Helduen euskara-irakasleentzat jardunaldiak

Joan den irailaren 8tik 12ra, Donostiako HABE Euskaltegian eta HABEren Glotodidaktika-taldeko Euskalduntze Sailaren ardurapean, helduen euskara-irakasleentzat eraturiko jardunaldiak burutu ziren. Gaia HABEk argitaratutako langaien aurkezpena eta erabilera euskalduntzearen 1-4 urratsetan izan zen.

Jardunaldion programa eta banaketa hauxe dugu: A mailako programazioaren eta materialaren aurkezpena (2 ordu), klasearen etapak (2 ordu), ohizko ariketa gramatikalak (2 ordu), ariketa analitikoak era komunikatiboan (2 ordu), mintzamena (4 ordu), irakurmena (4 ordu) eta entzumena (2 ordu).

Jardunaldiotarako tokia mugatua izanik, euskaltegi publikoetako eta pribatu homologatuetako irakasleei eman zitzaien lehentasuna. Zentru horietatik etorritako hogeita hamar irakasle inguru bildu ziren guztira. Ikastaroko dinamika eragilea zenez gero, hamabost laguneko bi taldetan lan egin zen.

Azken egunean eginiko ebaluazioan, irakasleek nahiko positibotzat jo zuten ekitaldia. Gure aldetik erantsi behar dugu materiala ezagutzen ez zuen irakasleari nahiz esperientziarik gabeari begira eratu zirela jardunaldiok, eta baldintza horiek betetzen zituzten irakasleek atera zietela etekinik gehien.

Joanba Bergara

EGA Hegan

Kaleratu berriak ditu Elkar-ek Bergarako U.N.E.D.eko euskal kultur departamenduak prestaturiko EGA Hegan liburuak; hauek azkeneko lau urteetan irakasle-talde honek izandako esperientzia, bildutako eta sortutako materiala eta egindako lanaren fruitu dira.

Lehenengo liburuak, EGA Hegan Gramatika eta Ariketak du izenburu. Bertan, EGA azterketa ereduaren nondik norakoak azaldu ondoren, morfologi gaiak, idazlanak eta eskutitzak lantzen dira. Bigarren liburuak EGA Hegan Lexikoa eta ariketak du izenburu. Ulermena eta Lexikoaren lanketarekin batera, zenbait modismoren eta esaera zaharren azalpena egiten du. Aipatu, batetik, bi liburuotan egiten diren aurkezpen eta azalpenak oso era didaktiko eta grafikoan emanak daudela, tarteka azterketa gainditze-

ko zenbait oharpen ere ematen delarik, eta, bestetik, ariketen erantzunak ere ematen dira liburuaren bukaeran.

Bukatzeko esan, EGA agiria lortu nahian dabilen ikasle kopuru haundiari oso baliagarri gertatuko zaizkiola liburuak baita berekasa etxean ikasten jarduten duenari ere.

Itziar Arrieta

Zazpi udal-euskaltegi berri Bizkaian

Ikasturte berri baten hasierarekin batera zazpi udal-euskaltegi berri zabaldu dira Bizkaian, Arrigorriaga, Areeta, Durango, Portugalete, Sestao, Sopela eta Ugaoko herrietan.

Urte batzutan udal-euskaltegien zabaltze plangintzan atzeratuta ibili ondoren, azken urteotan izugarrizko aurrerapena egin da lurralde honetan.

Lehendik martxan dauden 18 udal-euskaltegiekin, HABEren plangintza %75ean bete dela esan dezakegu.

Gaur egun hiru eskualde gelditzen zaizkigu oraindik euskaltegi publikoen zerbitzurik gabe: Enkarterriak, Meatzeta eta Kostaldea.

Ikasturte honetan, zazpi udal-euskaltegi berri zabaltzeaz gain, beste zenbait udal-euskaltegiren irakaslegoaren kopurua gehitu egin da. Honek guztionek, urte batetik bestera euskaltegi publikoen eskaintza bikoiztea ekarri du. Horrela, iaz euskaltegi publikoetan 2.000 ikasle inguru aritu baziren, aurten ia 4.000ra iritsiko gara.

Euskaltegi publikoen zabaltze eta egituratze programa 1988/89 ikasturterako guztiz burututa izango dugula uste dugu.

Jon Ajuria

Karlos Salinas hil zaigu

Ale hau bukatzear dagoenean heldu zaigu HABEren sorreratik lankide izan dugun Karlos Salinasen heriotzaren berri.

Duela bost urte, 1981eko irailaren 4ean HABE sortu zenean, han genuen Karlos gurekin, guztia martxan jartzeko eratu ziren ondoko hiru asteko jardunaldi haietan Angoston izan genuen bezalaxe.

Eta ondorengo bost urteak bete-beteak izan badira denontzat, ezin uka bete-betean bizi izan dituela Karlosek: lehen urtea Gasteizko HABE Euskaltegiko Koordinatzaile, hurrengo bi urteak bertako Zuzendari, laugarren urtea Arabako Lurralde-Ikuskatzaile eta azkenekoa Bilboko Ulibarri Euskaltegiko Zuzendari eta HABEko Batzorde Akademikoan Euskaltegi Pribatu Homologatuetako Zuzendarien Ordezkari.

Bost urteotan egina hitz laburretan azaltzen erraza ez bada ere, aipa ditzagun adibide gisa eta urrutira joan gabe, Karlosek ZUTABE aldizkari honetan argitara emandako bi lanak: «Ikastaro trinkoak» eta «Material didaktikoa eta ikasgaiak». ZUTABEren 3. zenbakian izan zen, «HABE 1981-1983: bi urte euskararen irakaskuntzan» gai monografia zuela atera zen alean. Karlos hurbil samarretik ezagutu dugunoi ez zaigu batere zaila izango bi lan horietan haren errainua eta taupada bizirik aurkitzea.

Eta monografiaren sarrera irakurritako bi pasartez amaituko ditugu hitz hauek, Karlosen heriotzak sortarazi dizkigun zenbait gogoetaren islada direlakoan.

> HABEren errealitatea didaktikaren eremuan bukatzen ez bada ere, oraingo honetan didaktikari eta eguneroko lanari eman diegu lehentasuna, eta beraien inguruan ibili nahi izan dugu. Badakigu bihar edo etzi Euskal Herriaren berreuskalduntze prozesuaren historia egitean, hemen jasotako zenbait ale bitxi ez dela aipatu ere egingo. Hala ere beude, zenbait jauzi kualitatibo hamaika urrats kuantitatiboren zordun denaren oroigarri.
>
> Badira gertaerak —batzutan pozgarriak, mingarriak bestetan— egunerokotasunetik atera eta, denboraren gaindi, iraganera eta etorkizunera begira jartzen gaituztenak. Aukera ezin hobeak izaten dira horrelakoak egindakoa baloratzeko batetik eta oraindik eginkizun dagoenari indar berriz ekiteko bestetik.

Ametsa bete gabe joan zatzaizkigu, Karlos. Oraindik geratzen garenok jakingo ote dugu bidean aurrera egiten.

Pello Esnal